

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Terrorismoa goratzen duten dozena bat pintada kendu dira Arbizon eta Etxarri-Aranatzen, bertako udalek ezabatu ez zituztenak

Udalerrri horietan pintadak garbitzen diren bigarren aldia da, Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu Ordezkaritzaren artean izenpetutako protokoloa betez

Viernes, 10 de mayo de 2013

Bart gauean terrorismoa goratzen edo gorazarre egiten zioten dozena bat pintada kendu dira Arbizon eta Etxarri-Aranatzen, bertako udalek ezabatu ez zituztenak. Jarduketa hori iragan azaroan Nafarroako Gobernuak eta Gobernu Ordezkaritzak izenpetutako [lankidetzaprotokolo](#)aren barnean sartzen da.



Arbizon kendutako pintadetako bat.

Guardia Zibilaren txosten batean oinarrituta, Ordezkaritzak duela hilabete baino gehiago Arbizu eta Etxarri-Aranatzeko udalei pintada horiek kentzeko eskaera egin zien, baina bi udalek ez zuten beren eskumena bete.

Pintadak ezabatzeke emandako epea agortu ondoren, Nafarroako Gobernuak kontratatutako enpresa batek, eta Foruzaingoko agenteen eskoltarekin, dozena bat pintada kendu dituzte. Gogoratu behar da, urtarrian udalerrri horietan terrorismoa goratzen edo gorazarre egiten zioten [beste dozena bat pintada](#) ezabatu zirela.

Bart gauean egindako lanen kostua mila euro ingurukoa da, eta Nafarroako Gobernuak udalei eskatuko die; izan ere, garbiketako zerbitzu publikoa betetzeko erakunde eskudunak dira. Ordaintzen ez badute, kopuru hori Toki Ogasunen Partaidetzako Funtsek Nafarroako Zergetan egindako transferentzietatik

kenduko da.

Hirugarren udal nafar bati ere eskaera egin zitzaion antzeko pintada batzuk ken zitzan bere udalerrian. Nolanahi ere, pintada horiek desagertu egin dira Nafarroako Gobernuak esku-hartzeko beharrik izan gabe.



Bart gauean kendutako beste pintadetako bat.